

## **35. ALDIZKARIA - 2008ko martxoaren 17a**

### **• II. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA**

#### **○ 2.1. ORDENANTZAK ETA BESTELAKO XEDAPEN OROKORRAK ETXARRI ARANATZ**

### **Ezgaitasuna duten pertsonendako aparkatze txartelak arautzen dituen udal ordenantza. Behin betiko onespena**

Etxarri Aranazko Udalak, 2006ko urriaren 4an egin osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen Ezgaitasuna duten pertsonendako aparkatze txartelak arautzen dituen udal ordenantza (2006ko 135. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN eman zen argitara, azaroaren 10ean).

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluari jarraikiz, maiatzaren 31ko 15/2002 Foru Legeak aldatu baitzuen, eta jendaurrean egoteko epea inork alegaziorik aurkeztu gabe iraganik, Etxarri Aranazko Udalak, 2008ko otsailaren 1ean egin osoko bilkuran, erabaki du ordenantza hori behin betikoz onestea eta haren testu osoa argitara ematea, behar diren ondorioak izan ditzan.

Etxarri Aranatzeko, 2008ko otsailaren 11n.-Jarduneko alkatea, Arantza Artieda Igoa.

#### **EZGAITASUNA DUTEN PERTSONENDA KO APARKATZE TXARTE LAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA**

1. artikulua. Xedea.

Ezgaitasuna duten pertsonendako aparkatze txartelak emateko arauak ematea da ordenantza honen xedea, Europako Kontseiluak 1998ko ekainaren 4an egin zuen 98/376/CE Gomendioarekin bat, ezgaitasuna duten pertsonen ibilgailua aparkatu ahal dezaten, ondotik joan-etorri handirik egin behar izan gabe.

2. artikulua. Baldintzak.

Aparkatze txartela eskuratzeko, beharrezkoa da baldintza hauek betetzea:

I.-Baliazintasun iraunkorreko gidariak:

1.-Elbarri interesdunak indarra duen gidabaimenaren jabe izan beharko du.

2.-Mugikortasuna urritzen dion elbarritasuna izatea; xehetasun hauek frogatu beharko ditu:

A.-%33tik goitiko elbarritasuna egiaztatzen duen ziurtagiria, garraio publiko edo kolektiboa erabiltzeko ezgaitasunen bat tarteko dela dioena.

B.-Nafarroako Osasun Zerbitzuko behar den departamentuak emandako osasun agiria, elbarritasunak modu larrian eragiten diola frogatzen duena, honetarako:

-Ibiltzeko, zangoetako edo gerri pelbikoko gaitz muskulu eskeletikoa dela-eta, eskumakila bat edo gehiago, protesiak edo ortesiak erabiltzera behartua izanik.

-Ehun metroko tartean gelditu gabe ibiltzeko, alterazio organiko edo funtzionalen ondorioz.

-Bere joan-etorrietan aulki gurpilduna behar izateraino .

-Aparkatzeko maniobrak egiteko, zango-besoetako edo gerri pelbikoko eta/edo sorbalda-gerrikoko gaitz muskulu eskeletikoa dela-eta.

II.-Ezintasun iraunkorra duten pertsonen zaintzaileak edo haiekin bizi diren ahaideak:

1.-Zaintzaileak edo ahaide bizikideak indarra duen gidabaimena eduki beharko du.

2.-Eskatzailearen dokumentazioa, elbarriarekin duen familia lotura frogatzen duena, edo hura zaintzen duela erakusten duena; baita harekin bizi dela ere, hala denean.

3.-Zaindutako ahaideak mugikortasuna urritzen dion elbarritasuna izatea; hori dela eta, honako hauek egiaztatu beharko dira:

A.-%33tik goitiko elbarritasuna egiaztatzen duen ziurtagiria, garraio publiko edo kolektiboa erabiltzeko ezgaitasunen bat tarteko dela dioena.

B.-Nafarroako Osasun Zerbitzuko behar den departamentuak emandako osasun agiria, elbarritasunak modu larrian eragiten diola frogatzen duena, honetarako:

-Ibiltzeko, zangoetako edo gerri pelbikoko gaitz muskulu eskeletikoa dela-eta, eskumakila bat edo gehiago, protesiak edo ortesiak erabiltzera behartua izanik.

-Ehun metroko tartean gelditu gabe ibiltzeko, alterazio organiko edo funtzionalen ondorioz.

-Bere joan-etorrietan aulki gurpilduna behar izateraino .

-Aparkatzeko maniobrak egiteko, zango-besoetako edo gerri pelbikoko eta/edo sorbalda-gerrikoko gaitz muskulu eskeletikoa dela-eta.

3. artikulua. Eskatzeko prozesua.

Txartelen eskariak udal bulegoetan egiten dira. Eskabideari bigarren oinarrian zehazten diren egiaztagiriak erantsiko zaizkio, baita bi argazki ere, kolorezkoak eta karnet tamainakoak.

Txartel bat baizik ez da emanen hartarako eskubidea duen lagun bakoitzeko, ukituaren izenean izan haren ahaide batenean izan, ukituak hirugarren baten beharra baldin badu joan-etorriak egiteko.

4. artikulua. Arau-haustea eta zehapenak.

Txartela eskuratzeko aurkeztzen diren datuak, egiaztagiriak, etab. faltsutzea arau-hauste administratiboa da, baita hura eskuratzeko galaraziko luketen datuak ezkatzea ere.

Orobat, txartelak kontzesio administratiborik gabe erabiltzea edo bertze baten txartela erabiltzea.

Faltsutzea egin dutenak eta txartela eskatzen dutenak izanen dira erantzuleak.

Arau-haustea zehatzeko, alde aurretik zehapen espedientea abiaraziko da eta, haren ebazpenaren aurretik, interesdunei entzunaldia emanen zaie betiere. Espedientea Zehapen Ahalmena gauzatzeko Erregelamenduan xedatzen denari jarraikiz tramitatuko da.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 326. artikuluan ezarritakoa betez, argitara ematen da orok jakin dezan.

5. artikulua. Txartelen indarraldia.

Txartelek 5 urtez egonen dira indarrean.

6. artikulua. Tarifak.

Eskuratzen diren momentuan ordainduko dira, kontzesioa onartutakoan.

Txartel bakoitzaren zenbatekoa: 6,00 euro.